



ILUSIOA ZABALTZEN
DUTEN IPUINAK

bibliotecainfantil.fundaciononce.es




1

Aneta poeta



2

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



3

TOTELTASUNARI BURUZ

THitz-egitea oso erraza dirudi normaltasunez egiten dutenentzat.

Dirudienez, dena hasten da gure burmuinean pentsamendu bat osatzen dugunean. Han bertan pentsamendu hori eraldatu eta ikasi dugun lengoia bihurtzen da. Ondoren, aho, aurpegi, lepo, mihi eta eztarik giharrei seinale bat bidaltzen zaie eta haiek **mugitzen dira, hitzak osatuz.**

Batzuetan, zerbaitek huts egiten du eta hitzak eteten dira, edo denbora gehiegi behar dute ahoskatzeko. Ura estropezuka ateratzen duen **ITURRI** baten antzekoa da, horregatik, zailtasun hori duten umeei zailagoa egiten zaie hitz egitea.

Kasu askotan, diagnostiko arin bat eta arreta goiztiarrarekin, **ZUZENDU DAITEKE.**

Horretarako entrenatu beharra dago eta hor, guraso, lagun eta adituek eginkizun oso garrantzitsua dute.

ANETA EZAGUTZEN DUZUNEAN, KONTATUKO DIZUNA OSO INTERESGARRIA DELA JAKINGO DUZU.

4


ONire izena Aneta da.
Idatzi eta idatzi egiten
dut, **POETA** naiz eta.

Ongi etorri nire
poesia-blogera,
IDAZTEAK
liluratzen nau eta teknologia
berriei esker
MUNDU GUZTiRa
iristen naiz.



5

Poesia ez da hain zaila. Goiz euritsu bat, zuhaitz baten
hostoen **mugimendua...**
edota matematikako irakaslea
inspirazio-iturri
izan daitezke.



6

Poeta izateko, ezinbestekoa da
hitzekin errimak.


osaten jakitea. Adibidez, maitasun hitzak handitasun,
gozotasun edo miresgarritasun bezalako hitzekin
osatzen du errima.

Horrela jarraitu ahalko nuke denbora luzez,
hitz ugari **EZAGUTZEN** ditut eta.

Hori da (*Francisco Belausteguigoitia*
Amorrortuk), nire logopedak, esaten duena,
batez bestekoa baino
azkarragoa naizela.

Aizu, datu hori
apunta ezazu!

(bada, nik dena
errimarekin esaten dut).



Nire logopediako kide
guztiak mutilak dira. Beraz,


printzesa

bat bezala tratatzen naute.

Bai, **TOTELKA**

hitz egiten dut.
Gogor entrenatu
naiz nire
isiltasunean ez itotzeko,
nire jauzietan arreta
ez jartzeko eta esan
nahi dudana

**BAKARRIK
ESATEKO.**

Toteltasunari hobeto egiten zaio aurre zure inguruan
MAITE ZAITUEN JENDEA DUZUNEAN.

Nire arreba María nire
MIRESLERIK



handiena da. Nire olerkiak
 eskolako karpetan itsatsita eramaten
 ditu, bere lagunek egiten
 duten bezala pertsona

**OSPETSUEN ARGAZKIAK JARRI
 9 BEHARREAN.**



Batzuetan borrokatzen dugu, baina tira, horrek ere
IDEIAK EMATEN DIZKIT.

Pasa den urtean María marmartia izeneko poesia
IDATZI NION.

10



Azkenaldian poz-pozik nago bi gauza **LORTU** ditudalako:
 lehenengoa, Pacoren izen osoa esatea, abizenak
 eta guzti!; bigarrena, klasean jende
 aurrean nire **POEMETAKO BAT IRAKURTZEN.**

11

EZAGUTZEN AL DUZUE TOTELKA HITZ EGITEN DUEN NORBAIT?

Historian, totelka hitz egiten zuten pertsonaia
 garrantzitsuak existitu dira.
 Horren adibide Ingalaterrako
 Jorge Erregea dugu, zeinak **aktore**
 baten laguntzaz, jendaurrean hitz
 egiten ikasi zuen.

"Erregearen hitzaldia" izeneko filma ikusi
 behar duzue, niri hunkigarria
iruditzen zait.

Aholku bat, totelka hitz egiten
 duen norbait ezagutzen
 duzuenean, nahiz eta zaila izan,
UTZ IEZAIUZUE ESALDIAK BERARI BUKATZEN,
ados?

12



Hain dira handiak nire
AURRERAPENAK,

non jatetxeren batean bazkaltzera ateratzen garenean, nire aitak niri esaten baitit janaria eskatzeko. Beste eguneko zerbitzariaren aurpegia ikusi beharko zenukete... **KAR KAR!**

Hain zen atsegina,
non ez baitzuen irribarrea kendu guztion janaria apuntatzen zuen bitartean...

ETA TARTE LUZETXOA
BEHAR IZAN NUEN, E?

Primerakoa da behar bezain beste denbora uztea, txarto sentiarazi gabe.



13

Tira, **BLOGEKO** argitalpenetan zuen iruzkinak ikustea espero dut.

ETA OLERKI MODUAN BADIRA, HOBETO!

Eta zergatik? Bada **POESIA ETA FANTASIA ERRIMA** egiten dutelako! Eta nik gauza biak maite ditut.



14

AMAIERA

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu. Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.